



Ebazpena, 2020ko maiatzaren 12koa, Langileak Kudeatzeko Zuzendariarena, epeen zenbaketa berriz hasten duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen autonomia erkidego mailako lekualdatze-lehiaketetan. Lehiaketa horiek Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 15eko eta 2020ko martxoaren 4ko Aginduen bidez deitu ziren, eta aipatutako prozedurak izapidetzen jarraituko da

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 15eko Aginduaren bidez, autonomia erkidego mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egin zen, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioentzat, lanpostuak betetze aldera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendeko ikastetxeetan.

Era berean, Hezkuntzako sailburuaren 2020ko martxoaren 4ko Aginduaren bidez, lekualdatze-lehiaketa deialdia egin zen, izaera bereziko irakaskuntza lanpostuak betetze aldera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendeko ikastetxeetan.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu zuen COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko. Haren hirugarren xedapen gehigarriak epe-mugak eta administrazio-epeak etetea ekarri zuen. Zehazki, Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 15eko Agindu bidez deitutako lekualdatze-lehiaketari dagokionez, merituen baremoarekin onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenden aurka gora jotzeko errekurtsioak aurkezteko epea eten zen. Hezkuntzako sailburuaren 2020ko martxoaren 4ko Agindu bidez deitutako lekualdatze-lehiaketari dagokionez, eskaerak eta betekizunak eta merituen ziurtatzen dituzten dokumentuak aurkezteko epearen zenbaketa eten zen.

2020ko maiatzaren 12ko Gobernu Kontseiluaren Akordio bidez 2020ko maiatzaren 13tik aurrera bi lekualdatze-lehiaketekin jarraitzea baimendu da. Ondorioz, etendako epeen zenbaketa berriz hasiko da eta aipatutako prozedurak izapidetzen jarraituko da.

Horrenbestez,

XEDATZEN DUT

1.- Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 15eko Agindu bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen autonomia erkidego mailako lekualdatze-lehiaketa.



Etendako epeak berriz zenbatzen hastea eta prozedura izapidetzen jarraitzea:

1.1.- 2020ko maiatzaren 13tik ekainaren 5era arte berriz hasiko da Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko martxoaren 4ko Ebazpenaren aurka gora jotzeko errekursoak aurkezteko epea. Ebazpen horren bidez argitara ematen dira EAEko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta arte eszenikoetako eta Arte plastikoetako eta diseinuko katedradun eta irakasleen nahiz Lanbide Heziketako irakasle teknikoen irakaskuntza-kidegoetako karrerako funtzionarioen erkidego mailako 2019/2020ko lekualdatze-lehiaketan onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda eta merezimenduen baremoan lortutako puntuazioa.

1.2.- 2020ko maiatzaren 13tik ekainaren 11ra arte berriz hasiko da Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko martxoaren 10eko Ebazpenaren aurka gora jotzeko errekursoak aurkezteko epea. Ebazpen horren bidez argitara ematen dira, EAEko maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioen erkidego mailako 2019/2020ko lekualdatze-lehiaketan onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda eta merezimenduen baremoan lortutako puntuazioa.

2.- Hezkuntzako sailburuaren 2020ko martxoaren 4ko Agindu bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendeko ikastetxeetan izaera bereziko lanpostuak betetzeko lekualdatze-lehiaketa.

2.1.- Eskaerak eta betekizunak eta merituak ziurtatzen dituzten dokumentuak aurkezteko epearen zenbaketa berriz hasiko da, 2020ko maiatzaren 13tik 27ra arte, egun hori barne, eta horrela aipatutako prozedura izapidetzen jarraituko da.

2.2.- Alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, karrerako funtzionarioek izapidetutako eskaerak eta dokumentazioa epea berriro hasten den lehen egun baliodunean aurkeztu direla ulertuko da.

2.3.- Kontuan hartuta egungo salbuespenezko egoera eta osasun-segurtasuna bermatzeko ezohiko neurriak hartu behar direla, hala nola gizarte-urruntzea lortzea, pertsonak elkartzea edo pertsonen arteko hurbiltasuna dakarten jarduerak saihestuz, pertsonak betekizunak eta/edo merezimenduak ziurtatzeko dokumentazioa entregatu behar duten kasuetan, honela jokatu da:

- **Dokumentazioa** "Meritu eta betekizunen alegazio eta ziurtapen orria" modeloarekin batera, beteta, entregatuko da, honako **helbide elektroniko** hauen bidez (hauetako batean bakarrik entregatu):



Araba: postubereziak.araba@euskadi.eus

Gipuzkoa: postubereziak.gipuzkoa@euskadi.eus

Bizkaia: postubereziak.bizkaia@euskadi.eus

- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko ikastetxeetan izaera bereziko irakasle-lanpostuetan karrerako funtzionario gisa izandako esperientzia egiaztatzeko: ikastetxeko zuzendaritzak emandako ziurtagiria entregatuko da, Hezkuntza Ikuskaritzaren oniritzirik gabe, eta Hezkuntza Sailak zuzenean jasoko du.

- **Argitalpenak** entregatzea: jatorrizko alearen ordeaz, argitalpenaren azalaren eta lehen 3 orrialdeen kopia entregatuko da, ISBNren datuak agertzen diren orrialdeaz gain. Beharrezkoa izanez gero, argitalpena geroago entregatzeko eskatuko da.

JON AGIRRE HUERGA
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 12an.